# Isilkeriak

**TXILLARDEGI**



«EZKERRA»ren izenean mintzo omen den multzo bitxi batek, ez du Ianaev-en kolpea inolaz ere gaitzetsi nahi. Inor gaitzestekotan, Gorbatxev dute gaitzesten, «sozialista ez delako». *Perestroikak* ekarri du, hain zuzen, marxismo-leninismoaren amaia; bidenabar Bush-i eskuak libro utziz. Beste inor gaitzestekotan, jakina, Boris Yeltsin «super-eskuindarra» doa zakarretara; merkatu librea legeztatu nahi duela garbi baitago. Estonia, Letonia eta Lituania aintzakotzat hartu duenean ere, badakigu «kolonia gisa» baliatzekotan egin duela «damutu» urde horrek. Hain zuzen ere, «miresgarria» izan da KGBak eta Ianaev-ek prestatu eta burutu duten kolpea: hiru hil bakarrik (Tejerok gutxiago, baina hau ez da aipatzen)... Baina, horretara, ESSBan gertatu dena azaldu ezina da. Hura «hala ere egoera sozialista» baldin bazen, nola uler daiteke herritarrak *miloika* jendilaje lotsagarri horien alde azaltzea? Fenomeno bera gertatzen da albaniarren artean. «Mendebaldeko paradisura» datoz trumilka, ezagutu duten «sozialismo»tik ihesi. Zer da paranoia bitxi hori? 45 urtez handik eta hemendik paradisua *huraxe zela* entzun ondoren, ondorioa, *hanka egitea*! Irrazionala. Hori guztia somatuz, «ezkerra»ren izenean mintzo omen diren batzuk, hautu hau egin dute: «Isil gaitezen!». Ekialdean azkeneko mende-erdi honetan gidari egon dena *despotismo* hutsa eta hilgarria izan dela sinetsi ezinik, *isilik*. Kontu hauek, ordea, ez dira gaurkoak. Russell eta Sartre ez dira atzokoak; Trotski ere ez. Khrustxev-en Txosten famatua, aspaldiko kontua da. Anti-marxistak psikiatrikoetan amaitzea, ez da CIA-ren ipuina. Eta naizo-arazoak konpontzekotan itoketa demografikoa erabiltzea, Moskuk aspaldidanik erabilitako sistema da. Letoniako eta Estoniako egoera ulertzeko, bertako *demografi-datuak irakurtzea* besterik ez da behar. Baina irakurtzeko adorea behar da izan. Eta «ezkerra»ren izenean mintzo diren batzuk... ez dute.

# HEMEROTEKA

## Navarra hoy

### Gure nazionalistak

Nazionalismo guztien azken helburua independentzia lortzea da, ustezko nazioa Estatu subirano bilakatzea.

(...)

Espainiari dagokionez, esan behar da mendeetan Estatu bakar modura lurralde batasuna izan dela bertan, beraz, SESB eta Jugoslaviako egoerarekin ezin da alderatu, gure barneko errealitateak ez du haienarekin zerikusirik. Hala ere, barregarria litzateke pentsatzea egungo gertaerek eraginik izan behar ez zutenik euskal eta kataluniar nazionalismoetan. Ez dago debekatuta utopiak amestea edo erabiltzea. Gure nazionalistei eskaini diezaiekegun bakarra da egoera eroso eta errespetagarria, lortezina den utopia horretan egon daitezen.

**PEDRO CALVO HERNANDO / 1991-VIII-29**

## EL MUNDO

### Arrazoi praktikoa, arrazoi politikoa

Gipuzkoako Diputatu Nagusiak arazo moral ezaguna jarri du mahai gainean. Akatsarekin paktatu al daiteke erabat sustraiturik dagoen arazoari irtenbide praktikoa ematearren?

(...) Arazoak garrantzi bikoitza du; dilema alde batetik biolentziaren gaian eta bestetik ETArekin negoziatzean oinarritu daiteke, ahalegin handirik gabe. Ez negoziatzea printzipio arazoa da, baina Herria sakrifikatzea ere bada, hala ere, horrek ez dirudi asko inporta duenik. Euskadin bizi direnek, eta bertako egoera ekonomikoa zertxobait ezagutzen dutenek, badakite ezin dugula honela jarraitu, baldin eta gure ekonomia betirako lurperatu nahi ez badugu. (...) Badakigu hitz egiteak ez dituela gaitz guztiak sendatzen, baina politikarien eginkizuna eskuak zikintzea da, printzipioak, behar izanez gero, traizionatzea eta konponbide praktikoak aurkitzea. Hori da, hain zuzen ere, Galdosek egin duena, eta uste dut jokoa jarraitzeak merezi duela zer gertatzen den ikusteko.

**A.P. DE CALLEJA / 1991-VIII-29**




**RIOJA / DIARIO 16 / 91-VIII-29**

## EL DIARIO VASCO

### Ez esana eta egina

Abuztuaren 5ean, astelehena, Galdos jauna Jonan Fernandezekin elkartu zen, elkarrizketa amaitutzat jo eta hilaren 9an berriro bildu ziren. Lurraldea Koordinakundeko bozeramalearekin hizketaldia bukatu ondoren, Batzar taldeetako bozeramaleei deitu ziguten.

Galdos jaunak Jonan Fernandezekin egindako hizketaldien edukina azaldu zigun eta bileran bi galdera esanguratsu sortu ziren. Bat, EEko bozeramaleak planteatu eta honako hipotesi hau 'imajinatu' zuena: «demagun EAJ HBrekin elkarrizketatu dela...». Uste horren aurrean Eli Galdosek erantzun gogorra izan zuen, neurriz kanpokoa nire ustetan, honakoa, alegia, ez uztea erabat gezurrezkoa dena inork sinestarazten! (...) Ondoren, nik neuk beste galdera bat egin nuen: A-2 trazaketa onena zelako onartu zen (bertan zegoen Martìn Elizazuk ere baieztatu egin zuen). Hala ere, aldatzea erabaki da. ETAren mehatxurik gabe aldatuko al zen proiektua? Horrela bada, Galdos jaunak inongo arazorik gabe ezetz erantzun zion galdera horri. Berriro diot, inongo lotsarik gabe, esan zuen trazaketaren aldaketa «presio sozialagatik» egin dela (nire ustez ETArena).

Bileran akordio horren alde agertu ziren PSOE —«hilketa gehiago izan ez dadin», EAJ «koordinakundeak, 'motu proprioz' ahalegin handiak egin ditu» eta PP, PSOEren antzeko argudioekin.

**CLAUDIO SAIZAR BENGOETXEA / 1991-VIII-29**

# Agur Arrebatxo!

## Eman ta zabal zazu I

**TXOMIN PEILLEN**



UZTAILA gau honetan, gaztelaniaz hitzegiten duen anderea Argentinatar doinuarekin mintzo eztiarekin, entzuten dut: Enriqueta Gaztelumendi deritzaio; bizkarrean hotza frogatzen dut, ezen gutiengo batzuek jatorrizko besteen bizkar obratu sarraskiaren lekukoa baita: bai Patagonian euskaldunok espanolekin batea, galestarrak argentinarrekin Fuegotarren hiltzaileak izan baikara. Arrebatxoa diot Enriketari, ezen andere hori Fuegotarren ondoko ta ondakin zerbait baldin bada, izan da bere ama «azalgorrizko indioa» euskaldun batekin ezkondua zelako: bere etniako guztiak hil zituztenean bizirik iraun zuen Enriketaren amak. Badaki eta dio alabak aita euskalduna zuela, deitura euskalduna, baina bestaldetik patagoniar kultura galdu duela. Artista lanez du aintzinako patagoniar ibildarien bizimoldea gorde, eta orain goratik Argentinan aldarrikatzen du, herri hortan egin den amerindiarren sarraskian Ipar Ameriketako gringoena haina izan dela. Galdetu zaionean Enriketari, amak beren aintzinako kultura bere ezkongabeko bizimoldea aipatzen zuenetz: «ezetz eta sekulan —ihardetsi du— ordudanik gorde zuen zer bakarra «el miedo a la blancos» izan zen. Gelditzen zaizkigun, patagoniarren oroitzapen bakarrak, gizon ta andere zahar batzuen etnografiazko grabaketak, ipuin ta abestiak dira.. eta denbora berean alefanteen galeraz, arduratzen eta kezkatzen gara! Azkenik esan duzuna mingarria zaigu: «zizelkaria ez banintz galdu diren nere odoleko, sekulako galdu direnen gisa, ahaztua nintzateke».

# ZUZENDARIARI

## Ken ikurrina eta kitto

Bilboko festetan gertatuak ematen dit idazteko gaia, sarritan aritu naizenen arren ikurrinaren asuntoaz pentsatzen.

Urte asko dira lehen pasaportea lortu eta *Ipar Euskal Herri*ra joaten hasi nintzela, bai, oraindik ongi gogoratzen naiz Iparraldea ezagutzen pasatako oporretaz; ikurrina agertzen zen postala erosi, idatzi, eta por si las moscas sobre batetan sartu ondoren bidali, hura poza!!!

Pozak alde batera utziz berehala ohartu nintzen Iparraldean ere ez genuela askatasunik euskaldunok, behin eta berriro egiten genuen topo frontoi eta zenbait zokoetan ikurrinaren ondoko frantsez banderarekin, eta hori ez nuen batere gogoko.

Hegoaldeko abertzaleon etxeetan ikurrinak bagenituen, baina ezkutuan, kanpora irtetzean asko jota txano zuri-gorri-berdeekin konformatu behar izaten genuen, edo eskumuturreko erlojuaren korrearentzat lehen aipaturiko koloreak aukeratzearekin; kantaldietan noizbehinka ausarten batek ipintzen zuen ikurrinaren bat. ETA erakundeak behin eta berriro jarri zituen ikurrinak argi indarreko kableetan edo lehergailu bati itsasiak, gure etsaietako batek baino gehiagok galdu zuen bizia ikurrinak kentzerakoan.

Denok gogoratuko dugu orain dela zenbait urte *Zeruko Argia*k bere lehen orrian kaleratutako ikurrinaz, baita ere Donostiako «konstituzio»? plazan San Sebastian bezperan normaltasunez lehenengo aldiz eskegi zen ikurrinaz, baita ere bertan zeudenen oihuaz.

Ongi gogoratzen naiz ikurrina «legalizatu» berritan nire herrian *Jel*kide batek ipini zuela udaletxeko balkoian, zenbat eta zenbat zaharren begietan ikusi nituen pozezko negar malkoak.

Momentu haietan inork ez zuen pentsatzen berriro piper potorik ikusi beharko genuenik gure udaletxeetako balkoietan, festetan ikurrina jartzen zen eta kitto.

Ondorengo urteetan aldatu dira zenbait alderdiren jarrerak: «legeria bete behar da», «hobe da bakeagatik banderarik ez jartzea», «Euskal Herriaren ezaugarri nagusietako bat da eta jarri egingo dugu», «azken finean trapuak dira», antzeko esaldi asko eta asko entzun beharrean aurkitu gara alderdien ordezkarien ahotan.

Abertzale bezala garbi dut asunto honetan beste zenbaitetan bezala ezin dugula amore eman, normaltasunak egun handitan gauza bat eskatzen du bandera zintzilikatzea, hori egiten dute, bai Parisen, bai Madrilen eta baita ere San Sebastian de los Reyesen, beraz, geuk ere ez dugu gutxiago izan behar eta geurea bakarrik den ikurrina jarriko dugu udal, batzoki, txoko, elkartetxe, herri elkarte, eta kaleetan festak irauten duten bitartean. Eta legezaleek piper potoa ikurrinaren alboan jarri nahi badute? Piper potoa ere jarri nahi badute, hori beraien arazoa da, jar dezatela, baina ea behingoz kontsekuenteak izaten hasten diren eta lotsarik gabe eta espainol urguiluarekin kutsaturik Alderdi Egunean, Aberri Egunean, herriko festetan, bai batzokietan, elkartetxeetan, ezkertokietan, jesuitaren mitinetan, gogor EKIkoen txosnetan eta abar ikurrinaren alboan piper potoa jartzen duten beraien espainolizazioaren ezaugarri gisa.

Eta ez badute kontsekuenteak izan nahi? Zenbait abertzaleoi nazka emango badigu ere guri tokatu zaigu lan hori betetzea, batzokietara jo, jesuiten mitinetara, gogorEGIra eta abarrera eta bertan piper potoa jarri edo margotu. Ziur nago lotsa lotsa eginda, eta internazional kabreoz sutan jarrita, gure lana berehala jarriko luketee! hankaz gora piper potoak kenduz edo korrika ezabatuz. Agian, gainera, berdina egingo lukete handik minutu batzuetara beraiek udaletan jarririko piper potoekin.

Sarritan tokatu zaigu ezker abertzaleari ikurrinak jartzea udaletan, baita beste zenbaitetan espainola erretiratzea ere, ene ustetan taktikak aldatzeko ordua gainean dugu, hemendik aurrera udal batetan ikurrinaren alboan piper potoa inposatzen digutenean, ezker abertzaleko militanteok menpekotasunik onartzen ez dugulako, etsaien ezaugarriek begietara min egiten digutelako, abertzale arrotasunez eta patxada osoz geure lan berriari ekingo diogu *Ikurrina ken eta kitto*, horrela herritar orok ikusiko du zintzilik dagoen piper potoa eta berehala lotuko du bandera hori jarri dutenekin, abertzale itxura faltsuko espainol berriekin.

Beraz, ados bazara *Ikurrina ken* eta *kitto*.

TXIKIOT
LEZO

**Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:** Martin Ugalde
**Kontseilu Editorialeko Lehendakaria:** Joan Mari Torrealdai
**Kontseilari Ordezkaria:** Joxe Miel Zumalabe
**Gerentea:** Inma Gomila
**Zuzendaria:** Pello Zubiria
**Zuzendariordeak:** Nerea Azurmendi, Luzien Etxezaharreta, Iñaki Uria
**Publizitatea:** Kornelio Roteta

Euskaldunon Egunkaria
Batzorde Parekidea: 72564 E
Lege Gordailua: SS 800/90

**HELBIDEAK**
**Egoitza soziala, Pulizitatea eta Administrazioa:** Antso Jakituna, 16-1. / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57
**Erredakzio eta Tailerra:** ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabilioak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎: 37 15 45 / Faxa: 36 54 93
**Araba:** San Antonio, 20-1.ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73
**Nafarroa:** Iratxe Monastegia, 45-13.esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎: 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77
**Bizkaia:** Barroeta Aldamar, 2-1.eskuma. / 48002 Bilbo / ☎: 423 90 62 / Faxa: 423 94 60
**Lapurdi / Nafarroa Behera / Zuberoa:** 2, Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11